

www.noaia.com

# Noaia !!



Joxe Domingo Aizpurua,  
aske baina egoera larrian



Joan Mari Torrealdei eta Egunkariako kideentzat

## Amesgaiztoa ez da oraindik amaitu



## Badok Amairu !!

### Goizane Auzmendi: "Egoeraren arabera da beldurra"

**P**sikologia ikasi du Goizane, eta arazo psikologikoak dituen jendeari laguntzen egiten du lan. Ostalaritzan ere aritzen da, betidanik aritu da eta lan horretan jarraitzen du oraindik.

1. JAKIRIK GOGOKOENA.  
Piper beteak eta gozoa.

2. OHITURA TXARREN BAT.  
Bat baino gehiago.

3. ZER GORDETZEN DUZU SAKELAN?  
Poltsan eramaten ditut gauzak.

4. ZERTAN BERPIZTUKO ZINATEKE?  
Berpizterik balego, agian, nigan berriz ere.

5. ZERI DIOZU BELDURRA?  
Egoeraren arabera, batzutan edozerk eman dezake beldurra.

6. MIRESTEN DUZUN PERTSONA.  
Batek baino gehiagok ditu bere alderdi miresgarriak.

7. EZIN ZAITEZKE BIZI...  
Maite nauenik gabe.

8. EGINDAKO EROKERIA HANDIENA.  
Asko.

9. LIBURU BAT.  
"Amar o depender".

10. FILM BAT.  
"La vida es bella", "Amelie",  
"Amores perros"...



11. LEKU BAT.  
Aurreko hilean Granada ezagutu nuen eta ikaragarri gustatu zitzaidan.

12. HERRIKO LEKURIK EDERRENA.  
Erribera. Sanestebanek ere badu bere xarma.

13. URTARO BAT.  
Udaberria, bertan dugu gainera!

## Noaua!!

NOAUA! Kultur Elkarte BORDABERRI 3 EGUZKITZALDEA - 20.170 USURBIL  
Tlf.: 943 36 03 21 / elkarte@noaua.com / www.noaua.com

Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua, elkarte@noaua.com

Aldizkari koordinatoria: Imanol Ubeda, erredakzioa@noaua.com

Idazkaria: Alaitz Aizpurua, elkarte@noaua.com

Publizitatea: Intza Salsamendi, publikitatea@noaua.com

Kolaboratzaileak: Lontxo Zubiria, Ane Manzisidor, Maria Angeles Arruti, Ainhoa Salsamendi, Maria Jesus Urbietta, Nerea Korta, Aritz Gorriti, Jone Eizmendi, Ainara Arnaiz, Begoña Rekondo, Iñaki Agirresarobe, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Iñaki Labaka, Koldo Huegun, Aloña Loidi, Imanol Goenaga, Agustín Esnaola, Alex Tello, Pako Agudo, Sara Lazkano, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Xabier Arregi, Edorta Agirre, Pello Aranburu, Ainara Uribe, Joseba Pellejero, Maider Makazaga, Aloña Pulido, Zaloa Arnaiz, Jakoba Errekondo, Ainhoa Azpiroz, Aitor Landaluze, Josu Aranberri, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Idoia Torregarai.  
Denborapasak: LUMA, O.E.

Bazkideztza: Aitziber Aranberri.

Erredakzio kontseilua: Imanol Ubeda, Zaloa Arnaiz, Agurtzane Solaberrieta, Joxe Luis Arrastoa, Alaitz Aizpurua, Nerea Korta.

Informatika: Topaguneko informatika zerbitzua.

Banaketa: Miren Azkonobieta, Txelo Vidal eta Kerman Errekondo.

Elektrikaria: Iñaki Salsamendi.

Tirada: 2.600 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilibidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

**IKA MIKA** ATALEAN PARTE HARTU NAHI BADUZU, GOGOAN IZAN IDATZIAK GEHIENEZ 2.000 KARAKTERE IZANGO DITUELA. ALE BAKOITZEAN EZ DIRA BI IKA-MIKA BAINO GEHIAGO ARGITARATUKO. IKA-MIKA BAT BAINO GEHIAGO IRISTEN BADA, NOAUA!K IDATZI HORIETAKO BAT HURRENGO ALE BATEAN ARGITARATZEKO ESKUBIDEA IZANGO DU. IDATZIA ARGITARATZE-DATA BAINA ASTEBETE LEHENAGO EKARRI BEHAR DA.

NOAUA!k ez du bere gain hartzen IKA MIKA atalean eta, orohar, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

## Aurkibidea

JOXE DOMINGO AIZPURUA ASKE **5. OR.**

KRONISTAK KALEJIRAN **6. OR.**

JOAN MARI TORREALDAIREKIN SOLASEAN **8. OR.**

'Egunkaria' auzian auzipetutako zazpi lagunengandik jarritako helegiteak baztertu eta prozesamenduarekin aurrera egitea erabaki zuen Auzitegi Nazionalak. Ahozko epaiketa bidean da orain auzia.



NOAUA!KO BATZARRA, HILAREN 25EAN **10. OR.**

HERRI KIROL LEHIAN, USURBIL BIGARREN **11. OR.**

"ENJOY ENGLISH" UDALEKUA **12. OR.**

GAURKO ETA ETORKIZUNEN PILOTARIAK **16. OR.**

PUBLIERREPORTAJEA **18. OR.**



Usurbilgo Udala



Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria



Kultura sailak diruz lagundutako aldizkaria



Euskal presoak

Euskal Herra!



JAKOBA ERREKONDO

## Min bat

A spaldikoa det min bat. Egutero, ia egutero, goiz parte-an piztu eta ziztadaka ekiten dit. Astelehenetan ezik egutero. Ez, ez... Astelehenetan ere pizten da, geroxeago baina pizten da. Astelehenetan ezik, egutero, goiz-partean egunkaria erosten dut.

Egunkaria erosten dut. Eguterokoa irakurtzea umetatik dakarkidan ohitura det. Etxean ikusi eta ikasia. Goizean geure etxean izaten zen egunkaria, bazkalondoan amonarenera jeisten genuen. Mundurako lotura zen egunkari hura.

Gaur egun BERRIA erosten dut. BERRIA da, nere ustez, geure tankerako jendeak erosi beharko lukeen egunkaria. Lehen egunkaria, binipin. Inork aitortu beharrik gabeko, berezko herri bat gerala munduari ia egutero gogora arazi behar diogun garai hauetan, euskaldun baten eskuetan duintasun osoz izan daitezkeen egunkari bakarra BERRIA da. Duintasun osoz, bere herrian, bere nazioan, bere kulturaren, bere bizitza bere gora-behera guztiekin ahalbideratzen diona bere hizkuntzan.

Goiz-partean, eguteroan kaskora jeisten naizenean lehen lana BERRIA erostea izaten dut. Batzuetan batere gabe gelditu izan du naiz, inon ez BERRIARIK, denak salduta! Gehienetan, ordea, euro ziztrin baten truke gustora hartzen dut nere BERRIA.

Egutero, BERRIA erosteko ingurumari horretan hasten zait mina. Piztu eta egun guztian, uneka gehixeago, tarteka gutxiexago, gogorxeago edo arinxago, ziztadaka ekiten didana. Kalea bor-bor izaten da ordu horietan, neure moduan lagun asko,

besapean, eskuen, patrikan, poltsan, bakoitzak berea, bere periodikua darama. Horixe dut mina, periodikua daramate. Senideek, auzokoeak, lagunak, ezagunak, ezezagunak gehienek erderazko periodikuak daramatzate, bakoitzak bere erderan: kiroltakoan, Frantziakoan, Espainiakoan, politikoan...

Gara, Le Journal du Pays Basque, Deia, Diario Vasco, Noticias de Gipuzkoa, El Correo, Sud Ouest, Diario de Navarra, Noticias de Navarra... denak erderaz. Euskaldunak ez direnentzako egokiak izan daitezkeen periodikuak. XXI. mendean ordea, euskaldunontzako irainaren mugatik bertagi dabilzanak. Batzuk euskaldunon kontrario porrokatuak dira, beste batzuk euskaldunon bizkar bizi direnak, erdal kultura hezurretaraino sartu nahi digutenak, erderak ezinbestekoak direla diotenak. Geure pentsakera erdaldunei azaltzeko egokiak direla diote askok, gero erderaz bakarrik irakurtzeraino...

Euskaldunak eta geure kultura aurrera aterako duen arma bakarra geure hizkuntza da. Hori ulertu arte hor arituko gara, orain arte gisan, urtetan eta urtetan bueltaka... Guk, hau da, Euskal Herriak kultura gisa etorkizunik baduela serio pentsatu eta publikoan esan eta esan dabilenak eta gero erderazko periodikua erosi, gezurretan ari da, inongo dudarik gabe geure herriaren aurka ari da, geure herriaren etorkizunaren aurka.

BERRIA ona edo txarra den? Nahiago nuke horretaz eztabaibatzen arituko bagina, irakurtzen den seinale hoberik? Orduantxe mina goxatuko litzaidake.

Ainhoa Azpiroz - Aitor Landaluze - Jakoba Errekondo - Luis Aranalde - Nerea Zinkunegi - Idoia Torregarai - Jose Piñas - Aritz Gorriti

## Ika-mika !!

### Usurbilgo Udala eta zerua galduta

Pasa den urtean Udalak Santuenetik Berritza bidean argi elektrikoak jarri zituen, esanez oinezko gizon emakumeak seguru ibiltzeko zela. Aurten Txokoaldetik San Estebaneraino eta Agerialde ikastolatik kanposanturaino jartzen ari dira. Hau kutsadura handitzea da eta benetan dirua botatzea.

Gaur egun eta ia Euskal Herri guztian argi elektrikoaren kutsadurak abiadura handiko tren hartu du. Gau batean Arratzain mendira igo, zerua begiratu eta ekialdean Donostia-Orereta-Hernani-Lasarte-Zubieta eta Errealaren Futbol zelaian hodei kutsakor zabal eta handia ikus dezakezu. Mendebaldera begiratzen baduzu, Orio, Aia eta Zarauzko kutsadura eta hegoaldera begiratu Andoain eta Usurbil (hauen artean kanposantuko argiak).

Hainbeste argi suposatzen du:

Iberdrolaren faktura handitzea (Euskal Herrian ez dago kanposantu bat ere 24 orduz argia duena, 4 urte), eta zerua, izarrak, planetak, ilargiak ezin ikusi, honekin batera lore eta animalien ziklo naturalak seriozki oztopatzen dira. Adibide bezala zenbait txori 24 ordu kantari jarduten dute bere osasun kalterako noski.

Usurbilgo Udalak "Agenda 21", "Desarrollo sostenible", onartu egin zuen eta aplikazioa aurkakoa da. Gaur egun Europa guztian agintari publikoak ahoa betetzen dute (Kioto ituna) baina praktika eskasa daramate, Euskal Herriko agintariek batzarrak, ekitaldiak, kongresuak, bidaiak... baina eskuak zuritzeko bakarrik antolatzen dituzte.

Katalunian, Balear irletan eta Kanariar irletan zintzo ari dira gaitz honen aurka, adibidez Formenteran (Balear iriak)

2004-2005ean argiaren kutsadura %90 gutxitu zuten, 135 tona CO2 gutxiago urtean, %36 fakturaren aurrezkoa, %40 kontsumoa eta zoruaren argi maila %300 handitu. Lan polita ezta?

Usurbilgo Udalan 2002an arkitektoari (Bravo jaunari G.B.) eta zinegotziei arautegi zirriborroa eta zenbait dekretu aurkeztu genizkien, Arau Subsidiarioetan eranskin bezala sartzeko, eta ezer ez.

Gaur egun, gure herriko herri bidea kaskotik kanpo behar duenak, oinezko jendea seguru ibiltzeko, espaloiak erai ki behar dira bestela Lantardietako baseritarrari arrazoiz guztia eman behar zaio, eta herri bide guztiak argitu behar dira, Andatza, Arratzain, Mendizorrotx eta gailur guztiak ere argitu behar dira.

Manu Aranburu, E.K.T.  
taldeko kidea

## Joxe Domingo Aizpurua, aske baina egoera larrian

**M**artxoaren 14an iluntzean geratu zen aske Joxe Domingo Aizpurua. Nanterreko kartzelan zen. Gaixotasun larria du eta alde zuzenetik abisatu gabe utzi zuten aske. Biharamunean, Paristik TGV trenea hartuta, Baionara heldu zen arratsaldeko hirurak pasatxo zirenean. Bertan, preso ohiak senitarteko eta lagunak zeuzkan zain, 80 pertsona inguru ikurrinekin eta "Euskal presoak etxera" oihukatuz, trenetik jaitsi zenean. Aurreku bat eskaini zitzaion eta Aizpurua bertan bildu zirenei erakutsitako esker ona "borroka egiten duen herriari eta zutik dagoen herriari" zabaldu nahi izan zizkion.



BAIONAKO TREN BELTOKIAN JENDE ASKO ZUEN ZAIN JOXE DOMINGOK.

Gaixotasun larria atzeman diote Joxe Domingo Aizpuruari. Hori dela eta, Frantziako Gobernuak hura aske uztea erabaki zuen. Erabakia ezustean jaso zuen presoak. Izan ere, aske utziko zutela esan eta berehala espetxe kanpoan ikusi

zuen bere burua.

Maulen atxilotu zuten Joxe Domingo 2003ko martxoaren 21ean. Baina aurretik ere atxilotu zuten, 1991. urtean. Ipar Euskal Herrian atxilotu zuten orduan ere. Hiru urte Frantziako espetxeetan

egin eta 1994an Espainiara kanporatu zuten. Kanporatzean «irregulartasunak» izan zirela salatu zuten orduan haren abokatuek, eta baita Espainiaratu ostean inkomunikatuta eduki zuten 14 eguntan torturatu egin zutela ere.

### Hemeroteka !!

## Gipuzkoa ondoko herrialdeetan tratatu nahi ditu zaborrak Diputazioak

**S**an Markoseko zabortegea itxi eta Serraste planta martxan jarri arte bost urte pasatuko direla aurreikusitako Gipuzkoako Foru Aldundiak. Horregatik, denbora tarte horretan San Markoseko mankomunitatean (Donostia, Errenteria, Pasaia, Oiartzun, Lezo, Astigarraga, Lasarte-Oria, Usurbil, Urnieta eta Hernani) sortzen den zaborrarekin zer egin ari dira aztertzen. Luis Mari Oiarbide Garapen Iraunkorreko diputatuak atzo aurreratu zuenez, Gipuzkoa ondoko herrialdeetako erakundeekin «harremanetan» daude, hiri hondakinen zati bat herrialde horietan kudea dezaten. Ez zuen zehaztu ze herrialderekin dauden harremanetan. Dena dela, aurreratu zuen Bizkaian zaborrak erretzea «zaila» izango dela, «Zabalgari biko erraste planta

bete-bete ari delako lanean».

Zabortegea itxi eta gero, San Markoseko mankomunitateko herriek zaborra «nora eraman» ez dutenean sortuko den «arazoa» konpontzea ez dela Diputazioaren «ardura» garbi utzi nahi izan zuen Oiarbidek. Hala ere, San Markosek gainontzeko mankomunitateen «elkartasuna» izan dezan «laguntza emateko» prest daudela gaineratu zuen. Hain zuzen, San Markoseko zaborra beste mankomunitateetako zabortegeetara eramateko aukera ere aztertzen ari dira Diputazioa eta San Markoseko mankomunitatea. «Diputazioa prest dago elkarlanean aritzeko, hiri hondakinen arazoa Gipuzkoa osoko ikuspegitik aztertu behar delako». «Orain dela bi urte arazoa larria zela esan genuenean, gezurretan aritzea leporatu ziguten.

Bagenekien zer zetorkigun gainera eta orain barneko eta kanpoko elkartasuna beharko dugu», gaineratu zuen Oiarbidek. Hala, erraste planta egin bitartean, herritarrei eskatu zien zabor gutxiago sortzeko eta ahalik eta gehien birziklatzeko.

### Balantzea

Bestalde, Oiarbidek aurreratu zuenez, Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko Plan Integralaren balantzea egingo du aurki Diputazioak, Planaren betetze maila baloratu ahal izateko. Hurrengo asteetan, gainera, zabor produktioa murrizteko kanpainak abiaraziko ditu. Donostian ere kanpaina egingo da.

Berria egunkarian jaso, martxoaren 18an

TXOKOALDE

IMANOL GOENAGA

## Lapur kontuak



**K**aixo auzotar agurgarriak, hemen gara berriz ere auzoko kontuetaz hitz egiteko. Azken aldian badirudi modan jarri dela geure auzoan lapurretan ibiltzea. Azkeneko hilabete hauetan inoiz baino kasu gehiago egon dira eta auzotar gehienak larrituta daude. Aurreko astean ordea auzotar batek gizon bat ikusi zuen gauean gure auzoan barrena bueltaka eta susmagarria iruditu zitzaion. Beraz isilka bere atzetik ibili zen zelatan eta gizon susmagarria auzoko kotxe guztiak arakutzen ari zela ikusi zuen. Kargu hartu zionean, susmagarria bazihoala ikusita, ertzainei deitu zien.



Dirudienez, ertzainek "Laxao" parean harrapatu omen zuten oinez zihola. Gure auzoan kotxe ezberdinetatik harrapatutako gauzak berarekin zituela. Eskerrak gure auzotar honi. Besterik gabe, ea azkenaldiko bolada txar hau pasatzen den eta berriz lehenagoko lasaitasunera itzultzen garen. Hurrengo batera arte.

KALEBERRI

IRATI PORTU

## Xiri-miri pixka bat



**A**tzo eguzkia, gaur euria... nahiz eta denok esan eguraldia zer esan ez daukagunean erabiltzen dugun gai ergela dela, egunero hitz egiten dugu honetaz, edo pentsatu gutxienez. Animoan ere eragina omen du. Lehengo astean unibertsitate-ra nindoala bururatu zitzaidan hontaz idaztea, eguzkiak aurpegia laztantzen zidan eta ni pozozik! Sentimendu goxoa.

Eta egun batzuk lehenago? Gogoan dut ostiral iluntzea zela eta betiko koadrilak asteroko bueltan faltarik egin gabe zebiltzala tabernetan. Elkarriketa bat nagusi: euria. Ni neroni txisteka aritu nintzen brometan "Euria? Bai zera! Hau xiri-miri pixka bat besterik ez da eta!" "Hau? Hau "calabobos"! Konturatu gabe busitzen zaituen horietakoal!" "Noski, horregatik zaude zu blai egin-da!"... Horrela joan zen gaua, iji eta aja.

Euria ez zen geratu ordea, eta xiri-miri hori bera izan da ibaiak toperaino bete zituena. Aspaldian ez dut nik Puntapaxeko erreka hain beterik ikusi, txikia izanda ez zen ezer gertatu, baina eragina beste ibaietan antzeman zen. Patata landatu eta baratza lokaztu zaion nekazariari esan bai "calabobos" a zer den...

Hasieran esan dudana, eguraldia gai tonto xamarra izango da, baina baita potoloa ere.

KALEZAR

JOSEBA PELLEJERO

## Hasi da udaberria

**I**zenburuak esaten duen moduan, dagoeneko Inatura neguko lozorrotik esnatzen hasia dago. Zuhaitzetako adar txikien puntak mugitzen hasiak dira, sahatsa eta batez ere mimosa, nabarmen azaltzen dira edozein bazterretan loraldi batean. Gure sagarrondoak pixkanaka hasiko dira loratzen kolore txuri-arroxaz. Udara aldera fruitua osatu, uzta bildu, sagarra jo eta edateko moduan dagoelarik, ziklo honen pare joango da aurtengo 25. Sagardo Egunaren ospakizun zerrenda luzea ere. Mende laurdena ez zaigu alperrik pasa usurbildarroi eta aurtengoa ere, parte hartzeaz gain, gogoa edukitzeko moduko ekintzak prestatzen ari gara.

Aurkezpena Kalezarren izango bada ere, jarraipena kaxkoan izango du, Gipuzkoako nahiz munduko sagardoarekin. Tartean, sukaldari ikastaroa, sagardo dastatzea afari goxo batekin, bertso saioa, ikastarokak, erakusketak, hitzaldiak eta bukatzeko herriko sagardo erakusketa eta dastatzea.

Aurten izango dugu non zer ikusia, entzun eta ikasia. Hasi beharko dugu eztarria garbitu eta "usurbildarrik daukate..."



ATXEGALDE

NEREA KORTA

## Obrak eta soinuak

**A**uzoa ez da jada berria. Badira hamabost urte ni etorri nintzela, eta orduan ere ez zen berria. Baina badira hilabete batzuk grua erraldoi batek zerua apaintzen duela. Bere berrikuntza beharko zuen Agerialdek ere, ez dugu nahiko ba sabai zatiak geure haurren gainera eror daitezten. Baina behingoan ez naiz hain zoritxarrekoa, obrak etxetik bi kaletara gelditzen zaizkit eta! Ez dakit bertako lanek zein sufrimendu mota ekarriko dizkien hango bizilagunei, baina herriko beste obra batek niri sufriarazten didanaren erdia bada, gajoak.

Egunetik egunera zailago dago oinez ibiltzeko. Zure atera iritsi nahi eta bide bila hasi behar. Behin aurkituta, minaz beteriko bunkerra zeharkatu behar da; "ai! Zementoa! Ai! Lokatza! J...! Nahiago dut hau zer den ez jakin". Eta, bai, behingoan helmugara iristen zara. Baina orduan dator okerrera: metro erdira dagoen langilearen makinak egiten duen trumoi hotsa. Belarri ondoan kilberra izatea ez da hain astuna; belarri barruan izatea ere ez litzateke izango. Lanak azkar bukatzen ez badira laguntza psikiatrikoa beharko duten herritar asko izango ditugu, lehenengoa ni neu. Eta egunen batean lurra zulatzen duen deabruaren makina trumoi-hots hori desagertzen bada, ni ez naiz izan.



SANTUENEA

IÑAKI LARRAÑAGA

## Auzotarren asmoak garatzen



Aze mugimendua daukaguna auzoan! Lehengo batean lagun batek zera esan zidan: "Hi Larra, enteratu nauk Santuenean yoga ematen dutela, jode! Gainera lokal berri horrekin!".

Eta nere erantzuna: "hi ez bakarrik yoga, dantza, josteko ikastaroa, kapoira dantza, laster makilatzeo ikastaroa eta etorriko direnak ere".

Nere laguna harrিতuta geratu zen eta ez da gutxiagorako. Hau dena ikustea orain urte gutxi ezinezkoa litzateke, baino piskanka, jendearen bultzadarekin eta lokal berriak ematen dituen baldintzekin, asmoak gauzatzen doaz.

Nere lehenengo artikuluan iragarri nuen kultur mugimendu honentzat lokalak sekulako garrantzia izango zuela eta ikusi besterik ez dago ze gustora joaten den jendea, ze aukerak ematen dituen...

Gainera udaberrian sartu gara, horrek suposatzen duenarekin, badakizue; erokeria puntu bat hartzen dugu, alerjiak... eta baita txotxaren bukaera ere. Hala ere, botiletan zain izango dugu sagardoa eta dirudienez polita dator aurtengoa.

Kontu honekin jarraituz, posible al litzake sagardoari buruzko ikastaroa? Gutxienez hitzaldi bat edo...

Ai udaberria, dagoeneko erotzen hasi naiz!

URDAIAGA

NEREA AIZPURUA

## Udaberria



Agur bero bat guztioi San Estebango txoko honetatik!

Iada udaberrian sartuak gara eta horretarako azken egunetako eta joan den asteko eguraldian erreparatu besterik ez dugu. Izan ere, tenperaturak nabarmen egin du gora eta gure inguruetako zelaia ere kolorez jazten hasiak dira dagoeneko. Nonnahi ikus daitezke margaritak zelaietan eta "mimosaren" kolore horia ere paraje guztietan atzeman daiteke.

Kolorea, bizitasuna, epeltasuna, argitasuna... Udaberrian guztiak "brillo" berezia du: parajeak, ilusioek, ametsek, fantasiak... Nik behintzat gogokoen dudana urtaroa da honako hau.

Udaberria ederra izateaz gain, guztion edo gehien umorean eragiten duela diotenen aldekoa naiz.

Sarritan, kanpoko ingurune naturalak eragina izan ohi du pertsona baten umore egoeran.

Eta gure txokoari dagokionez esan, jendea hasi dela etortzen eta parkean mahai berriak ditugula; hauek zaintzea guztion lana izango da ordea.

AGINAGA

LONTXO ZUBIRIA

## Xiberoako Azkorria gazta



Aginagatik urruti ikusten dugu Zuberoa edo Xiberoa, bertakoek esaten duten moduan. Baina "Azkorria" - "egunsentia", zubereraz- gazta egiten hasi diren kooperatiba horretako laborari edo baserritar batzuek badute lotura gure herriarekin. Lotura berezia dute gainera Urdaira sagardotegiarekin, urtero egiten baitugu bertan kantu eta dantza afaria, goizaldeko ordu txikiak gainera etortzen zaizkigun arte. Afari ederra izaten da, eta are ederrago nekazari hauek ekoizten hasi diren gazta berria.

Apostu latza egin dute gure lagun zuberotar hauek, orain arte bezala esnea zentral handiei saltzeari utzi eta elkarrekin kooperatiba sortuta beren gazta egin eta saltzen hasita. Soinean daramatzaten galtzak ere galduko dituzte ez badira txukun eta pulamentuz ahegintzen.

Zuberoan ere hemen bezala zerbait egin beharra sentitu dute nekazari hauek, baldin eta beheraka doan nekazarien bizimoduari aurre egin eta jarraipena emango badiote. Kaiku, Pyrenefrom edo Chaumes bezalako esne zentral handien menpe jarraituz gero, horiek bai betirako lurperatuko dituztela gure baserritarrak.

Baina "beti aintzina" egin beharra dago. Beraz, "Azkorria" gazta erosten baldin baduzue kalitateaz gain Zuberoako laborarien etorkizuna ziurtatzen lagunduko duzue.

Bukatzeke, berriro plateretara itzuli gaitezten. Aste honetan ospatuko dugu esan dugun afari hau. Norbaitek kontu hauetaz gehiago jakin nahi badu, Urdaira sagardotegira deitu besterik ez dauka.

ZUBIETA

EDORTA AGIRRE

## Radio irracional de España

Denis Elortza lankideari, lehenik: herriko frontoiko aulkiak bernizatzeo dirurik ez dago Santuenetik Urdaigarako bidean farolak jarri behar izan direlako, hortik oinez eta gauzez inor sekula ez dabilen arren.

Donostiako Zurriola hondartza eta Ulia mendi inguruko metroak oso jugosoak dira espekulatzeo, oso garestiak. Andatzako lurak ez du, inondik ere, prezio hori. Radio Nacional de Españak Ulia mendian dauzkan instalazioak Zubietara ekarri nahi ditu, ez dakigu zergatik.

Irrati hori denok (baita nahi ez dugunok ere) ordaintzen dugu geure patrikatik. Bere instalazioak Andatzen jartzeko, hamalau munstro motordun ekarri, herri-bideak urratu, ubideak estali, pistak itxi, legarra eta burdinak barreiatu, zaborrak bota, horietako batzuk jaso (besteak, sastrakan ezkutatu)... egin du. "Donejakue (Santio) Bidea" euskarazko kartela ere zikindu egin du. Mingainarekin ukituko zuen, noski.

Kontuak kontu, espainolen hizkuntza Euskal Herrian zabaltzeo beste tramankulu bat instalatuko dute. Euskal Herrian euskarazko irrati ofizial bakarra eta telebista ofizial bakarra dugu; espainol eta frantsesezkoak, hamaika.

Ez omen da nahikoa, beste bat jarri behar, Radio Españako profesional alfer eta erdipurdioek euskararen kontrako borrokan segi dezaten. Ea euskara estaltzen, itozten duten.

Baita orain hiru mila urte hil direnen ahotsa eta oroimena ere. Atzerriko irrati horrek Olaiko trikuharriak ere suntsitu, txikitu, desegin ditu. Gaiztakeria izan den, axolagabekeria izan den, berdin dio.

Galtzailea, etxekoa. Segi etxera, espainiarrak!

# Joan Mari Torrealdai

## “Ahozko epaiketarako bidean da Egunkaria auzia”

**H**ilabete eskas egin zuen atxiloturik Joan Mari Torrealdaik. Bost egun inkomunikatutik eta gainontzekoak kartzelan, inkomunikazio egunetan pasa zituztenak pasa eta gero “guri zerua iruditu zitzagun kartzelan”, Joan Mari Torrealdaik azaldu digunez. Martxoaren 15ean NOAUA!ra hurbildu zen. Egun horretan, hiru urte lehenago, Soto del Realgo espetxetik atera zen aske Jakin aldizkariko zuzendaria. Hiru urte pasa diren arren, Egunkaria auziko kideentzat ametsgaiztoa ez da oraindik amaitu.

NOAUA! Egunkaria auzian auzipetutako zazpi lagunen defentsak jarritako helegiteak baztertu eta prozesamenduarekin aurrera egitea erabaki zuen Auzitegi Nazionalak duela hilabete. Espero al zenuten?

Joan Mari Torrealdai. Esperantzak graduak eta mailak ditu. Batzutan premiatik sortzen da esperantza, eta guk esperantza izateko premia badugu. Baina ohikoa da gertatu dena. Hala ere, epaiketa bertan behera uzteko aukera bazen, fiskalaren bidez. Fiskalak ez bazuen salakuntzarik egin, beste jarrera bat izan balu, hori gerta zitekeen.

### EGUNKARIA AUZIA

Ahozko epaiketarako bidean da auzia. Fiskalak, une horretan ere, akusaziorik ez egitea erabaki dezake

Nola bultzada politikoaz gertatu zen gertatu zena, beste norabidean dihoan beste bultzada politiko bat egitea eskatzen genuen guk. Gaizki hartu zen erabaki bat eta injustizia batean oinarrituta dagoen erabaki bat bertan behera uzteko bultzada.



HIRU URTE PASA DIREN ARREN, “EGUNKARIA” AUZIKO KIDEENTZAT AMESGAIZTOA EZ DA ORAINDIK AMAITU.

N. Hala ere, auzia artxibatzeko eskatzen jarraitzen du defentsak. Fiskalak badu akusaziorik ez egiteko aukera oraindik, ezta?

J. M. T. Bai, baina aukera on bat galdu da. Ohikoa da gertatu dena, komatxo artean ohikoa. Estadistikoki hori normala da. Orain ahozko epaiketarako bidean gaude. Hor beste momentu bat dago non fiskalak erabaki dezakeen akusaziorik ez egitea. Gauzak horrela balira –alde batetik fiskala, bestetik, gure abokatuak eta aurrean epailea– nahikoa litzateke fiskalak esatea `hemen ez dago nahikoa frogarik epaiketa baterako eta nik ez dut akusaziorik egingo`. Gure auzian, ordea, beste bi salatari dauzkagu pertsonatuak: AVT eta Dignidad y Justicia. Horiek mantendu egingo lukete epaiketa. Beste bi akusazio hauek daudenez, epaimahaiak dauka azken erabakia. Zentzu horretan, lehen baino ahulago gaude.

N. Dena den, fiskalak akusaziorik ez egitea garrantzitsua litzateke.

J. M. T. Guztiz. Ahozko epaiketa iristen den garaian erabakiorra izan daiteke. Eman dezagun politikoki badagoela epaiketara ez iristeko borondatea. Badago epaiketa bertan behera uzteko aukera. Fiskalaren bidez egin daiteke, baina epaimahaiak izango luke azken hitza. Auzitegi Nazionalan dela kontuan hartuta, handia izan beharko luke bultzada politiko hori gerta dadin. Seguruena bultzada politiko ez da nahikoa izango giroa edo marko politiko orokorra aldatzen ez bada.

N. Giro politiko nola sumatzen duzu oraintxe bertan.

J. M. T. Gorabeherekin. Koiunturalki uste dut nahiko gaizki dagoela. Bestela, lerro artean irakurrita, esperantza mantentzeko adina helduleku badagoela uste dut.



## “Guk hurbildik jarraitzen dugu 18/98 auziaren epaiketa”

N. Gerora egingo diren epaiketen aurrean, termometro ona al da 18/98 auzia? Errenkan etorriko baitira beste epaiketak. Akaso gauzak nahastea da.

J. M. T. Badira ezberdintasunak. Sumarioa 18/98 auzian askoz konplexuagoa da. Baina konparaketa ez da desagokia. Kontuan izanda non egiten den, Entzutegi Nazionalan.

Guk gure artean egiten ditugun ñabardurak han ez dute batere garrantziarik. Entzutegian diferentzia horiek desagertu egiten dira eta azkenean beren begietatik begiratuta guztiok mundu bera osatzen dugu. Alde horretatik, nik uste dut arretaz segitzeko delat 18/98 epaiketa.

Gurea ez da hain konplexua, gure kasuan instrukzioa hobeto egina izango da, baina oinarrian dauden argumentuak berdinak dira. Dokumentuak ere berdinak dira, salakuntzak, epaileak ere berberak...

Argudio falta berdintsua ikusten da. Argudioak oso orokorrak dira. Hor bezala, gurean, fenomenologia sozio-politiko bat epaitu nahi da. Amankomunean elementu asko dauzkagu guztiok. Batekoak izan edo bes-

tekoak izan. Formazio politikoa izan edo ez izan. Euskararen munduan bagaude, independenteak baldin bagara –independenteak, ez gaudela administrazioan alegia–, horrek besterik gabe susmagarri bihurtzen du jendea. Gero paperen baten zure izena azaltzen bada, hori nahikoa helduleku bada beraiantzat nahi dutena egiteko.

### Babes zabala

N. Duela hiru urte, talde, elkarte eta instituzioen babes zabala jaso zenuten. Babes hori sumatzen al duzue oraindik?

J. M. T. Bai, sumatzen da. Nik oso sentrazio onak dauzkat. Berotasun hori kualitatiboki oso anitza baita. Azkenean normala da zure lagunek, zure familiak zu animatzea. Zurekin egotea. Oso inportantea, gainera, baina ohikoa bezala hartzen duzuna. Hortik aparte sentitzen duzunean, joera politiko eta sozial ezberdinetatik iristen denean, horrek beste balio bat hartzen du. Guk hori bizi dugu. “Eutsi” esaten didan jende asko dago, eta “eskerrik asko” esaten didan jendea ere, duintasuna erakustearren.



AURRERA EGITEKO ANIMOS ONDO DAGOELA ESAN DIGU TORREALDAIK.

Horrelaxe bizi dut errealitatea eta horrek animatzen nau aurrera segitzera.

IMANOL UBEDA

## “Zure etorkizunaren interprete bihurtzen zaituzte eta hori oso ofizio txarra da”

**N**OAU! Duela hiru urte itxizuten Egunkaria. Egunero martxan, muga asko dituzue oraindik.

Joan Mari Torreal dai. Hamabostean behin epaitegira joan behar dugu sinatzera, kontuak blokeatuta ditugu. Ez nireak bakarrik, emaztearenak ere bai. Elkarrekin genituen kontuak blokeatuta daude. Horren aurrean asaldatzen zara, zure adinean eta horrela ibili behar! Baina tira.

Egun hauetan, Pariseko liburu azoka ospatzen da. Baina ezin muga pasa. Ni urtero joaten nintzen; orain ezin dut joan. Ezin dut

Baionara liburuak erostera edo egunpasa joan.

Oporrak hartzerakoan, kontuan hartu behar duzu noiz hartu, sinatzera joan behar duzulako.

Baina gero Damoclesen ezpata dago. Etorkizuna. Zer gertatuko da? Noiz gertatuko da? Sei hilabete barru? Hiru hilabete barru? Urtebete barru? Noiz izango dugu epaiketa? Epaietan zer gertatuko da? Eta koiuntura politikoaren arabera, barrura ala kanpora? Horren baitan dago. Ez dago epaietaren beraren baitan, zeren ez baitute akusazioa frogatuko. Ez dute frogatu-

tuko. Ez dagoelako frogarik. Ez dago deliturik. Baina zantzu horiek badakigu lortu nahi duten erabakia lortzeko nahikoa direla beraiantzat. Horrek bai, horrek jotzen zaitu. Ez baitakizu Damoclesen ezpata noiz eroriko zaizun. Orduan adi zaude, ea egoera orain gaiztotu, orain hobetu, ea zerbait badatorren... Horrela bizi dugu errealitatea. Deklarazio guztiak irakurtzen dituzu. Zure etorkizunaren interprete bihurtzen zaituzte eta hori oso ofizio txarra da. Triste da. Zure beste lanetatik ateratzen zaituzte. Patxada mantentzen nahiko lan.

## Martxoaren 25ean, NOAUA!ko bazkideen Batzar Nagusia

Urtean behin besterik ez bada ere, garrantzitsua da bidean geldialdi bat egin eta etxeko kontuak astintzea. 1996an argitaratu zen NOAUA!ren lehen alea eta, berriki, astekarirako jauzi garrantzitsua eman dugu. Beraz, aztertzeorik bada.

2005 urteak utzi duena aztertu eta 2006ak ekar dezakeena aurreikusteko

garaia iritsi da. Honetan guztian gure elkarteko bazkide zaren horrek baduzu zeresanik. Hau dela eta, NOAUA! Kultur Elkartearen Batzar Nagusira etortzeko gonbidapena luzatu nahi dizugu.

Iaz bezala, aurten ere NOAUA!ko bulegoan egingo da batzarra. Martxoaren 25ean. Lehen deialdia, 10:15ean; bigarrena, 10:30ean.



AURTEN ERE, NOAUA!KO EGOITZAN EGINGO DA BATZARRA.

## Argazki digitala eta henna, udaberrirako antolatu ditugun bi ikastaroak

Argazki digitalaren munduan Asakendu nahi duzu? Henna zer den eta nola erabili behar den ezagutu nahi al duzu? Bi ikastaro hauen bidez argitu nahi ditugun galderak dira. Izena emateko epea jada zabalik dago. Ez utzi azken ordurako, ikasle kopurua mugatua izango baita.

Gaur egun jende ugari dauka etxe-

an kamara digitala. Ikastaro honen helburua argazki kamara hauen erabilpena nolakoa izan behar duen eta ondoren argazkiaren tratamendua eta aukerak zein diren ezagutzea izango da.

2 orduko bi saio izango dira. Besterik ez. Hori da argazki digitalaren gaineko ikastaroak iraungo duena. Apirilaren 22an lehen saioa; apirilaren 29an bigarrena. Biak, goi-

zako 11:00etatik 13:00era.

Henna ikastaroa, aldiz, hiru ordukoa izango da. Maiatzaren 6an egingo da, goizeko 10:00etan hasi eta 13:00ean amaituko da.

Bi ikastaro hauetan izena emateko NOAUA!ren egoitzara etorri beharko duzu (prezioa ikastaro bakoitzeko, 15 euro). Izena emateko epea apirilaren 5ean amaituko da. Ikasle kopurua mugatua izango da, gehienez 15 lagun.

## Algara ugari eragin zituzten

### “Erreleboa” antzezlaneko aktoreek

Ikusmin handia sortu zuen “Erreleboa” antzezlanak. Pentsa, astebete lehenago gonbidapen guztiak agortuta zeuden. Iker Galarza eta Joseba Usabiaga aktoreek umorez jantzi dute jatorriz Ernesto Caballerorena den “El Retén” antzezlanak, euskaraz “Erreleboa” izenarekin taularatzen ari diren saioa. Sutegiko auditoriora gerturatu zirenak irrifarre zabal batekin irten ziren.



**LATAILLADE**  **ITURGINTZA**

GASA  
BEROKUNTZA  
MANTENIMENDUA ETA  
KLIMATIZAZIO INSTALAKUNTZAK

Aritzitxo 8, behea · 943 363 348 · 609 888 021

 **LABE-GOXO**

Kale nagusia, 10  
Telf: 943 37 33 48  
943 37 09 13

Okindegia - Gozategia

**Patri Jatetxea**



K/nagusia 14. © 943 362 725

# Usurbildarrak, bigarren, Sagarrondotik jaialdiko herri kirol lehia

**G**iro polita sortu zen martxoaren 19an Urnietan. Egitaraua oparoa zen: sagardo dastaketa, artisau azoka, txekor jatea eta herri kirolak. 10:00etan ez zegoen inor asko Urnietako plazan, baina 11:00etatik aurrera etenik gabe hasi zen jendea inguratzen. Azkenerako, plaza leporaino betea eta jaki eta edariak agortuta. Espero zen bezala, herri kirolek ikusmin handia piztu dute aurten, joan den urtean arrakasta handia izan baitzuten. Lau herrik neurtu zituzten indarrak eta Urnietak irabazi zuen, bigarren urtez segidan. Bigarren Usurbil gelditu zen, Hernani hirugarren, eta Astigarraga laugarren.

Usurbilgo Aitzaga elkarteko kideek iazko lana hobetu eta bigarren postua lortu dute aurtengoan.



AURTEN ERE JENDE ASKO BILDU ZEN URNIETAKO PILOTALEKUAN. USURBILDARRAK BIGARRENAK IZAN ZIREN.

## Haurren agresibitatea hizpide Zubietako Herri Eskolan

**H**aurren agresibitateari buruzko hitzaldia antolatu da Zubietako Herri Eskolan. Martxoaren 23an, osteguna, arratsaldeko 18:00etan. 0 eta 7 urte bitarteko haurren gurasoentzat antolatu du ekitaldia Zubietako Herri Eskolako guraso elkarteak. Anai-arreben artean, lagun artean, eskolan zein parkean egoera agresiboak agertzen diren egin beharrekoaz hitz egingo da hitzaldi honetan.

## “Elvi” bentrilokuoa, martxoaren 25ean Santuenean

**E**lvi izenarekin ezaguna den bentrilokuoa Santueneko ludotekan izango da martxoaren 25ean. Saioa arratsaldeko 18:30ean hasiko da eta Santuenea Kultur Elkarteak antolatu du.

Bestetik, autoestimaren inguruko tailerra ere antolatu da. Egun bakarrekoa izango da eta martxoaren 27an egingo da autoestima tailerra, arratsaldeko 14:45ean hasi eta 16:15ak bitartean, Santueneko elkarte berrian.

## Martxoaren 24an manifestaziorako deia egin du Batasunak

**O**rain herria, orain bakea lelopean, Batasunak hainbat ekitaldi antolatu ditu. Iragan asteazkenean, Batasunako mahaikide batek hitzaldia eskaini zuen Usurbilen. Ostiral honetan, hilak 24, manifestaziorako deia egin dute. Frontoi atzetik abiatuko da, iluntzeko 20:00etan. Martxoaren 26an Hernanin egingo den ekitaldi politikora joateko deia ere luzatu da. Azkenik, martxoaren 28ko ohiko udalbatza ple-noan mozioa aurkeztuko du Batasunak.

teilatuak eta fatxadak  
**JOSE AIZPURUA UNANUE**



Obaba kalea 29 · ASTEASU  
© 943 69 68 52 · 620 800 186



BORDATXO  
*edaritegia*

PINTXO BEREZIAK

Zubiarenean, 5  
Telf: 943 37 10 42

# Enjoy English

## Ingelesa era dibertigarrian ikasteko aukera

**I**ngelesa ikasteko udalekuaren izenburua da Enjoy English. Udarregi ikastolak hirugarrenez antolatuko du aurten. Aloña Mendizabal ingeles eskolak ematen ditu Udarregin, eta bera izango da udaleku hauen koordinatzailea. Iaz arrakasta handia izan zuela eta oso ongi antolatuta daudela adierazi digu Aloñak. Baina badute arazo bat: inork ez ditu irakasleak etxean hartu nahi.

NOAUA! Zein da udaleku hauen bereizgarritasun nagusia?

Aloña Mendizabal. Udaleku irekiak dira. Ez ikastolako haurrentzat bakarrik, urtero Lasarte-Oriako neskatxa bat ere izaten dugu. Kontua da begiraleak nati-boak direla, normalean Irlandakoak edo Erresuma Batuakoak. Begiraleek Usurbila etorri baino lehen prestakuntza bat jasotzen dute. Jolasen bidez, proiektuen eta ipuinen bidez, era dibertigarri batean ingelesa irakasten saiatzen dira. Talde ezberdinetan banatzen gara, normalean bi talde osatzen ditugu. A taldea: 5 urtetik 8 urtera arte (HH5etik LH2ra arte). B taldea: hirugarren mailatik seigarren mailara arteko ikasleentzat. Aurten ekainaren 28tik uztailearen 21era egingo da udalekua, baina izen ematea apirilaren 7an amaituko da.

### INGELES UDALEKUAK

“Irakasleak eta ikasleak ingelesez komunikatu behar dira derrigorrez”

**N. Irakasle ingelesak etortzen dira orduan. Ze onura du horrek?**

A. M. Nahita nahi ez ikasleek begiraleekin ingelesez hitz egin behar dute. Nahiz eta ikastolan izan, eta ni koordinatzaile modura egon, pertsona berri batzuekin egongo dira, atzerritarrak diren begiraleekin. Hau da, begiraleen



USURBILEN DUELA HIRU URTE HASI ZIREN UDALEKU HAU ESKAINTZEN.

hizkuntza ingelesa da, beraiekin komunikatu behar dute eta gehiago saiatuko dira.

### Begiralea etxea hartzen duten haurrek, matrikula doan

**N. Noiztik egiten dira udaleku hauek Usurbilen?**

A. M. Usurbilen duela 3 urte hasi ginen. Bizkaiko Ikastolen Elkarteok, ordea, urteak daramatzate hau egiten. Usurbilen guraso batzuk udarako zer-bait eskatu zuten; guri ere interesgarria iruditu zitzaigun. Animatu egin ginen eta lehenengo urteko esperientzia oso polita izan zen, oso ondo prestatuta zegoelako. Ikusi genuen interesa zegoela eta geroz eta ume gehiago apuntatzen zirela.

Monitore edo begirale hauek Bizkaiko Ikastolen Elkarteak (BIE) aukeratzen ditu. Erresuma Batuan, unibertsitateko ikasle direnak aurkezten dira programa honetara, entrebista bat egiten zaie han, eta gero BIEk hara bidalitako ordezkariak aukeraketa egiten dute. Usurbila etorri aurretik, Durangon hiru eguneko ikastaroa egiten dute.

Baina arazo bat daukagu urtero.

Baldintzetako bat da bi monitoreek umeen etxeetan bizi behar dutela hilabete osoan. Guk gurasoei bidaltzen diegun paperean argi jartzen dugu monitoreak inork ez baditu etxean hartzen udalekua bertan behera geldituko dela. Eta urtero izaten dugu horrekin arazoa. Esperientzia polita izan da orain arte etxean izan dituztenentzat, oso positiboa. Pertsona ezezagun bat da, hizkuntza ezberdina hitz egiten duena. Hilabete horretan ohea utzi, jaten eman eta arropa garbitu behar zaio, besterik ez. Jendeak pentsatzen du lan asko dela. Eta lana bada, baina bere alde positiboa baditu. Ume horrek etxean begirale ingeles bat izatea ona da, baita ohitura ezberdinak ikasteko ere. Jende gaztea izaten da beti, ikasteko prest dagoena... Nik uste polita dela. Hori bai, monitorea hartzen dutenek doan dute ikastaroa. Baina hala ere, urtero dugu arazo berdina. Aurten ere apuntatu diren guztiek esan dute ez dutela begiralea etxean hartu nahi. Ez da guk jartzen dugun araua, hori Bizkaiko Ikastolen Elkarteak ezarritakoa da, eta beharrezkoa dela uste dut.

## Haurrentzat esperientzia aberasgarria

N. Nola hartzen dituzte ikastaro hauek ikasleek? Gustura aritzen dira?

**Aloña Mendizabal.** Orain arte behintzat normalean errepikatu egin dute. 6. mailakoekin jada zailago da, haiei jada ez zaie hainbeste interesatzen, baina normalean errepikatu egiten dute. Esperientzia polita da eta beraientzako ezezagun bat hor egotea ere garrantzitsua da. Bi urtetan izan naiz ni koordinatzailea eta aurten ere ni hor egongo naiz arduradun bezala. Betiere irakasleak hizkuntza arazoak baditu, edo ikasleren batek min hartzen badu, edota materiala prestatu behar bada...

Baina klaseetan ni ez naiz normalean sartzen, begiraleek ematen dituzte klaseak.

Ikasleak ere, hizkuntzarekin ongi moldatzen dira. Ikastolan lau urteretik hasten dira ingelesa ikasten, beraz, nahiko ondo defendatzen dira. Begiraleak ere badakite zer aurkituko duten hemen.

N. Aisia eta ikasketak uztartzen dira gainera, ezta?

A. M. Ikastolan egiten denez, gura-

so askok ikusten dute gogorra izan daitekeela ikastolatik irten eta berriro ikastolara bueltatzea. Baina uste dut garbi gelditu dela, eta beraiek ere ikusi dutela, oso ezberdina dela. Ikastolan egiten da eraikuntza bat behar delako, baina jokoak kanpoan dira, astean behin mendi irteera egiten da (Arratzain edo San Estebanera, adibidez)... Dena oso aktiboa da, ez dira egoten paper baten aurrean idazten. Txikiek astero ipuin bat daukate. Adibidez hiru txerrixoen ipuinarekin ari badira, txerrixoen etxeak egiten dituzte, plastilina jokoak... Ipuinaren inguruko ariketak praktikoak.

Eta B taldekoek proiektuak egiten dituzte. Eskulanak asko lantzen dira, egunero dago tarte bat plastika lanerako. Guzti honi normalean show batekin, antzerki batekin, ematen zaio amaiera, uztailearen 20an edo izango dena. Gurasoak gonbidatzen ditugu, eta hilabetearen zehar lantzen aritu diren ipuinak eta proiektuak aurkeztu egiten dituzte ikasleek. Antzerki moduko bat egiten da gurasoen aurrean.

### Apirilaren 7an amaituko da izena emateko epea

**Non:** Udarregi ikastolan.

**Noiz:** Ekainak 28/ uztaileak 21.

**Ordutegia:** 09:00-13:00.

**Norentzat:** A taldea: HH5, LH1 eta LH2ko ikasleentzat.

B taldea: LH3, LH4, LH5 eta LH6ko ikasleentzat.

**Irakasleak:** begirale natiboak.

**Prezioa:** Ikasle kopuruaren arabera (280 euro inguru).

Begiralea etxean hartzen duenak matrikula doan.

#### Oharrak:

1.- Izena emateko epea: apirilaren 7a baino lehen.

2.- Begiraleak hartzeko etxerik ez balego, udalekua bertan behera utziko litzateke.



## Ederki ibili ginen Inauterietan

**O**tsailaren 24an Udarregi ikastolako ikasleak jaialdi berezi bat egin genuen: Inauteriak. Gu palestinarrez jantzita edo mozorrotuta atera ginen. DBH 2koak jamaikarrez joan ziren eta DBH 3koak, berriz, bikingoz. Gure ustez, dantzarik politena eta landuena DBH 3koena izan zen.

Arratsaldean berriz, emanaldi desberdinak eskaini genituen DBHko ikasleok: imitazioak, dantzak, antzerki asmatuak... izan ziren jaialdi hartako berezitasunak. Gure lehenengo aldia zenez, ez genuen oso ondo antzeztu, urduri baikeuden. Hala ere, izan ziren oso ondo

aritu zirenak, "Saltsa arroxa", "Aukeratu eta erantzun"... adibidez.

Dantzarik politena DBH 4ko neskek egin zuten "Que más da" abestiarekin. Imitaziorik onena, ordea, DBH 3ko hiru ikasleek egin zuten, "Wazemank" taldekoek: Haritz Aramburu, Josu Ostolaza eta Beñat Etxeberria. Hau izan zen puntu gehien lortu zuen taldea, eta irabazlea. Argazki lehiaketan Jon Unanuek eta Aitziber Barreñak irabazi zuten. Ondoren, dantzaldia izan zen DBHko ikasleentzat.

Oso ondo pasa genuen, baina neka-neka eginda bukatu genuen.

DBH 1eko ikasleak



## Ekainean zabalduko da Irisasi zentroa

**T**xokoalden aurki irekiko den Irisasi zentroan zailtasun emozional eta portaera arazo larriak dituzten 12 gaztetxo hartuko dira. Gizarte Politikarako foru diputatu Esther Larrañagak ekainetik aurrera Irisasin eramango den programa aurkeztu zuen martxoaren 20an.

Zentro berriak Foru Aldundiaren tutoretzapean dauden 13 urtetik gorako 12 neska-mutil hartuko ditu. “Etxe honetan zainduko diren gaztetxoek zailtasun handia dute beren ingurunera moldatzeko, bai familian, bai eskolan eta lagunartean ere; zailtasun horiek kanporatzeko jokaera erasokorrek izaten dituzte; gainera, emozio mailako eta ezagutza mailako nahasteak ere izaten dituzte, eta horrek asko mugatzen ditu besteekiko harremanetarako”, azaldu zuen Esther Larrañaga diputatuak.

Azken urte hauetan, aldatu egin da Aldundiaren atentzioa behar duten adingabeen profila: “Adin handiagoa dute eta ezaugarri espezifiko batzuk: familian desegituratze maila eta estres handia; substantzia toxikoak hartzeko ohitura; ez dute onartzen araurik eta mugarik; agintedun figura oro arbuia-

tzen dute; ez dute harreman afektibo egokia izan; eta gizarte bazterketako egoeran edo arriskuan daude”. Aldundiak kudeatzen dituen egoitzetan dauzkan adingabeen artean %11 dira jokaera antisozialak dituztenak. Guztira 482 adingabe babestu zituen Aldundiak iaz. Horietatik 276 adingabeentzako etxeetan bizi izan ziren, eta 206 harrera familietan.

Diputatuaren hitzetan, “horrelako arazoak dituzten gazteek laguntza baliabide bereziak behar dituzte, jokaera horiek zuzendu eta eguneroko bizitza normalizatzea eramango dituztenak, jokabidea kontrolatuz eta behar denean arazo psikologiko edo psikiatrikoetarako tratamendua ere emanez”.

### Guardetxe izandako etxea

Zentro berria, lehen, guardaren etxea zen. Oso-osorik eraberritua izan da eta proiektuaren kostua 1.028.441 eurokoa izan da.

Etxeak hiru solairu gehi teilatu azpikoa ditu, guztira 616 metro karratu, eta kanpoan 2.200 metro karratuko lurzataria.

Sotoan zentroko zerbitzuak jarriko dira: sukaldea eta sukalongoa, garbitu-



1.028.441 EUROKO INBERTSIOA

EGIN DU FORU ALDUNDIAK.

kia, aldagelak, galdara gela, biltegia eta jardueretarako gela bat.

Behe solairuan daude zuzendariaren eta hezitzaileen bulegoak, bilera gela, informatika gela, jangela, egongela, bainugela egokitu bat, bisita gela eta terapi gela.

Lehen solairuan, berriz, denentzako toki batzuk egongo dira –egongela bat, irakurgela eta komunak-, eta, bestalde, gaueko hezitzailearen bulegoa eta lau logela –bi laguneko bi eta lagun bakarreko beste bi-.

Teilatupean beste sei gela jarriko dira, denak pertsona bakarrekoak.

## Martxoaren 25ean, EHNAREN tramitazioa egiteko aukera berri bat

**M**artxoaren 25ean, Euskal Herriko Naziotasun Aitorpena (EHNA) tramitatzeko aukera berria izango dute usurbildarrek. Udaletxean, goizeko 10:30etik aurrera. Udalbiltzak Nazio Batuen Erakundeari (NBE) bideratu nahi dion eskakizuna sinatzeko aukera ere izango da.

UHL Usurbilgo Herri Lan elkarguneak antolatu du ekitaldia. UHLk igorri digun prentsa-oharraren arabera, NBEra igorriko diren eskakizun horiekin “euskaldunoi gure naziotasun eskubidea aitortua eta errespetatua” izate

eskatu nahi da. Horregatik, EHNA agiria duten guztien sinadurak bildu nahi dira. Beraz, funtsezkoa da EHNAREkin hurbiltzea udaletxean ipiniko duten mahaira. Hitzordua, martxoaren 25ean larunbata, 10:30etik 13:30era.

### EHNA nola eskuratu

Nazio Batuen Erakundeari zuzendutako agiria sinatzeaz gain, EHNA agiria tramitatzeko aukera ere eskaniko du UHLk. EHNA eskuratu ahal izateko, errolda agiria, 3 argazki eta 15 euro beharko dira. 18 urte beherakoek familia-liburuaren fotokopia aurkeztu beharko dute.

## 18/98+ lan taldeak Madrilerako joateko autobusa antolatu du

**E**paiketa hasi zenetik hona, Egorabehera handiak eman dira. Epe laburrera zer gerta daitekeen aurreikustea ez da lan erraza. Hala ere, 18/98+ Usurbilgo lan taldearen ustez, Zumalabe fundazioko kideen deklarazioak martxoaren 28an has daitezke.

Auzi honetan Olatz Altunak deklaratu behar duenez, 18/98+ lan taldeak autobusa antolatzeko asmoa du. Martxoaren 29an aterako litzateke autobusa.

Ohiko tabernetan jarri dira izenamateko orriak.

## Agenda !!

### Martxoak 23, osteguna

- Haurren agresibitatea hizpide Zubietako Herri Eskolan. 18:00etan.

### Martxoak 24, ostirala

- "Orain herria, orain bakea" lelopean manifestazioa Usurbilgo frontoi atzetik abiatuta. 20:00etan.

### Martxoak 25, larunbata

- NOAUA!ko bazkideen Batzar Nagusia NOAUA!ko egoitzan, 10:30ean.

- EHNA tramitatzeko aukera. Udaletxean, 10:30etik 13:30era. Deitzailea: UHL. Beharrezkoak: errolda agiria, 3 argazki eta 15 euro. 18 urte beherakoek, familia-liburuaren fotokopia ere bai.

- "Elvi" bentrilokuoa Santueneko ludotekan. 18:30ean. Antolatzailea: Santuenea Kultur Elkarte.

### Martxoak 27, astelehena

- Autoestima tailerra, arratsaldeko 14:45etik 16:15era, Santuenea Kultur Elkarteko egoitzan.

## Fischer zirkoa Usurbilen

Fischer zirkoa gure artean izango da martxoaren 24, 25 eta 26an, anbulatorioko aparkalekuan. Malabarista, pailazo, orekari eta hezitako animaliekin iritsiko dira: ahuntz orekariak, zakur komedianteak eta Mickey, hezitako zaldia.

Ordutegia ezberdina izango da hiru egunetan: hilaren 24an ostirala, 18:00etan; hilaren 25ean larunbata, 19:00etan; eta hilaren 26an igandea, 17:00etan.

## Egin kontu !!

### Zumetaren irudiekin apaindutako alfonbrak

Juan Luis Goenaga, Jose Ramon Anda, Koldobika Jauregi, Marta Cardenas eta Jose Luis Zumeta artistek diseinatutako alfonbrak ikusgai daude Donostiako Nomada aretoan.

Noiz arte: Apirilaren 17a arte.

Non: Nomada aretoan (Abuztuak 31 kalea, 24 Donostia).



## Goardiako farmaziak !!

Martxoak 24, ostirala  
Gil, Nagusia 24 Lasarte

Martxoak 25, larunbata  
Iturralde, Bordaberrri 1 Usurbil  
Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

Martxoak 26, igandea  
Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

Martxoak 27, astelehena  
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

Martxoak 28, asteartea  
Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

Martxoak 29, asteazkena  
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

Martxoak 30, osteguna  
De Miguel, Nagusia 32 Lasarte

Martxoak 31, ostirala  
Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

Apirilak 1, larunbata  
Oa Kontzeju Zaharra 11 Usurbil  
Gil, Nagusia 24 Lasarte

Apirilak 2, igandea  
Gil, Nagusia 24 Lasarte

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ  
Aizpury, Latsunbeberri 11, Hernani.  
943 336 077 (Urte osoan).

## Telefono interesgarriak !!

- Udala.....943 37 19 51
- Udaltzaingoa.....943 36 11 12
- Obrak eta Zerbitzuak .....943 37 01 48
- Eusko Tren.....943 47 09 76
- Anbulategia.....943 36 20 13
- Udarregi Ikastola.....943 36 12 16
- Udarregi (Agerialde).....943 36 38 95
- Haur Eskola (Kalezar).....943 37 40 61
- Oiarde kiroldegia.....943 37 24 98
- Zumarte .....943 37 15 94
- Etumeta euskaltegia .....943 37 20 01
- Taxi geltokia.....943 36 21 78
- D.Y.A. ....943 46 46 22
- Gure Pakea.....943 37 32 28
- Gure Elkarte.....943 37 17 51
- Arrate Egoitza.....943 36 63 40
- Bake epaitegia.....943 37 23 36
- Oa farmazia.....943 37 60 76
- Iturralde farmazia.....943 36 33 95
- Zubietako Batzarra.....943 37 20 77
- Argindarra (Iberduero).....943 47 09 76
- NOAUA! aldizkaria.....943 36 03 21
- Ertzantza.....112
- Suhiltzailak.....112
- Larrialdiak.....112
- Anbulantziak.....112

**ANTXETA**  
taberna-jatetxea

ogitartekoak  
eguneroko menua  
plater konbinatuak

EGUZKITZA, 4 USURBIL · 943 370 344

**txirriStra**  
KONTSEJU ZAHARRA 13  
943 300 400

pintxoak  
ogitartekoak  
plater konbinatuak

**TABERNA**

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!

**USURBILGO HORTZ KLINIKA**

FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER  
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA

Kale Nagusia, 2 1.C4  
Tlf 943 37 08 78

20170  
USURBIL

**Zendoia**

Kale Nagusia 3b · 943 37 40 71

ARRAINDEGIA  
**PELLO**

Puntapax Kalea,7  
Tlf 36 21 64  
USURBIL

## Oraina eta etorkizuna bikain pilotan

**H**erriko pilotariak sasoi onean daudela erakusten ari dira. Federatu mailan nahiz eskola arteko txapelketan maila ona ematen ari dira eta datorren asteburuan partida garrantzitsuak jokatuko dituzte. Andatzpe-Peña Pagolako Adur Urkia eta Mikel Landak Gipuzkoako elkarteen arteko trinkete txapelketako finala jokatuko dute eta Udarregiko alebin mailako taldeak, berriz, Gipuzkoako eskola arteko txapelketako finalerdia.

Herriko pilota elkarteko kideak gustura egoteko moduan dira. Aurtengo denboraldian trinkete joko gogor hartu dute eta emaitzak begi bistakoak dira. Eskuz banaka Gipuzkoako txapeldun izan zen Mikel Landa eta eskuz binaka ere finalean dira Andatzpe-Peña Pagolako pilotariak.

Izan ere, Adur Urkiak eta Mikel Landak osatutako bikoteak martxoaren 25ean, larunbatean, jokatuko dute azken neurketa. Pasa den asteburuan jokatu zuten finalerdietako norgehiagoka Astigarrako Mundarro taldeko pilotarien aurka eta 40-26 irabazi ondoren txapelketa honetako azken neurketa jokatzeke moduan izango dira.

Txapelketa bikaina burutzen ari da bikote hau. Orain arte jokatutako partida guztiak irabazi dituzte eta final handiaren atarian indartsu daudela agertu dute. Hala ere, aurrez aurre izango duten



JOSEBA ZUBELDIK ONDO HASI DU DENBORALDI BERRIA.

Villabonako Behar Zana taldeko pilotariak ere ez dira atzera gelditzen, hauek ere orain arteko norgehiagoka guztietan garaipena lortu baitute. Beraz, lehia estua izango da Donostiako Gaska trinketean larunbatean jokatuko dena.

Bestalde, Udarregi ikastola ordezkatzu alebin mailan Gipuzkoako eskola arteko finalerdietan sartu da Julen Berradre, Iñigo Ibargoien, Iñaki Irazusta eta Jon Galbetek osatutako taldea. Txapelketa honetako azken fasea jokatzeke txartela lortu ondoren, pasa den larunbatean Zestoan jokatu zuten Azkoitiko Floreaga ikastetxearen aurka final laurdenetako norgehiagoka eta 5-0 irabazi zuten.

Azken urteetan maila hauetan "pilotan jolas" jokamoldea erabiltzen dute. Eskuz banaka nahiz binaka partida desberdinak jokatzen dituzte 6 tantora eta norgehiagoka irabazteko 5 neurketa irabazi behar dira. Talde bakoitzetik 3 pilotarik parte hartzen dute eta guztiak guztien aurka jokatzeaz gain, binakako partidetan aurrelari eta atzelari postuak aldatu egiten dira; sakea ere ezin du beti pilotari berak egin.

Badirudi herriko pilotari gazteak bikain moldatzen direla joko honetan eta Zestoan jokatuko dute finalurrekoa larunbatean 17.00etan.

JOSU ARANBERRI

### Zarautz eta Usurbilgo nesken arteko lehia

**K**adete mailako nesken eskubaloi taldeak partida garrantzitsua jokatuko du asteburu honetan Zarautzen. Udaberri txapelketan lehen bi postuetan dauden taldeak izango dira aurrez aurre. Zarautzarrak daude lidergoan, baina usurbildarrek aurrea hartu diezaiekete garaipena lortzen badute. Bestalde, jubencil mailako mutilek Bergaran jokatuko dute eta kadeteek Elgoibarren. Azken hauek, berdinketa lortu zuten azken partidari Aloña Mendiren aurka eta 3. postuan kokatuta daude Gipuzkoako txapelketan.

### Herriko hiru futbol taldeak Zubietan

**U**surbil Futbol Taldeko hiru taldeek Zubietako belar artifizialeko zelaian jokatuko dituzte euren partidak asteburu honetan. Emakumezkoen taldeak Vasconia taldearen aurka jokatuko du atzeratutako neurketa. Pasa den larunbatean Euskaldunari 7-0 irabazi ondoren beste garaipen bat lortzeko gogoz izango dira herriko neskek. 1. Erregional mailako taldeak, berriz, Rotetaren aurka jokatuko du eta 2. Jubencil mailakoak Kostkas-Miren Bihotza izango du aurrez aurre igoera faseko partidari.

### Futbol 7ko taldeak lehenengo postuetan

**F**utbol 7 txapelketako 3. mailan jokatzen ari diren herriko hiru taldeak bikain dabilta Itxiera torneoan. Hirurak sailkapeneko lehen postuetan kokatuta daude 6. jardunaldia jokatuta ondoren. Txotx Aialde-Berri eta Olarrondo jatetxea lidergoan dira A eta C multzoetan eta Balerdi Harategiak taldea 3. postuan kokatuta dago liderrarengandik puntu bakar batera B multzoan. Hirurek lehen bi postuak eskuratu beharko dituzte datorren denboraldian 2. mailan jokatuta nahi badute behintzat.



**Txerrimunik ordainetan!**

**Zorionak Maddi!**  
 Martxoaren 23an 7 urte beteko ditu etxeko neska handienak, muxu potolok ahizpa, anaia eta gurasoen partez.



Martxoaren 24an nork egingo urteak eta hara, **Aginagako Lontxok!** Ondo pasa urtebetetze egunean. Urte askotarako!



Martxoaren 27an zure urtebetetze eguna dela ez dugu ahaztu. Ondo pasa eta muxu handi bat denon partetik. **Zorionak Aloña!**



Martxoaren 26a iritsi duk eta! Ze uste huen ahaztu egingo gintuala edo! Ezta pentsatu ere! **Zorionak Unai!**



**Zorionak Urko!**  
 Gogoratuko haiz ba martxoaren 22an hire eguna dela, ezta? Hire zain egongo gaituk belarritik tiratzeko.



**Zorionak poxpolin!**  
 Martxoaren 24an 23 bete-koitun. Hire kuadrilaren partez egun mundiala pasa zan. Gu hikin ospatu zai eongo gaitun. Eongo gatxin Jaione!



**HILDAKOAK**

- **M.ª Dolores Manterola Ariceta, "Maritxu"**  
 Martxoaren 16an hil zen 56 urte zituela. Iarbe baserria, Aginaga.



**JAIOTZAK**

- **Ainara Lopetegi Estevez**  
 Martxoaren 6an.  
 - **Peru Iraeta Aguirre**  
 Martxoaren 11n.

**ETXEBIZITZA**

- Gazte euskaldun bat naiz eta Usurbilen edo inguruetan, bakarrik edo konpartituta etxe bat alokatuko nuke. 943361229 Joseba.
- Usurbilgo bikote gazte batek pisua alokatu nahiko luke Usurbilen. 679 185 102.
- Usurbilen pisua bat alokairuan hartuko nuke. Tel: 630 032 779.
- Usurbilen edo inguruetan 3 haur eta 2 helduentzat alokairuan hartzeko pisu bat bilatzen dut premiaz. 620 646 769.
- Usurbilen alokairuan etxe bat behar dugu. Ordainketa bermatua. 943365737.
- Capbreton (Landas) Home mobile alokatzen da. Bi logela dauka. Hondartza gertu. Guztiz jantzia, terraza eta jardina. Pazkoa eta udarako. Merkea. Camping La Civelse 3\*\*\*. 685 721652

**SALEROSKETAK / GARAJEAK**

- Garaje itxi bat alokatzen da Etxealdian, 22m2, kotxea erraz sartzen da, 76 euro. Interesatuak deitu arratsalde 943373185 telefonora.
- Lokal bat daukagu alokairuan 70m2koa. Interesatuak deitu 943 372 034.
- Aparkalekuak salgai Bizkarra 1-8 etxe taldean, Kale Nagusia 3. 607 905 859 (Imanol).
- Honda Dominator 650 cc motorra egoera oso onean. 667 172 010 (Jon).
- Garaje itxi bat alokatzen da Kale Nagusian. Interesatuak: 943 361 235.

**LANPOSTUAK**

**Lan-eskaerak**

- Kamarera bat eskaintzen da. Esperientziaduna. 616273785
- Emakume bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko, umeak eta helduak zaintzeko eta antzeko lanetarako. Interesatuak deitu 630274906.
- Bakeiran snow-ko klaseak eta ikastaroak ematen dira. Alojamentua ere eskaintzen da. Informazio gehiago: 652 651 906
- LH eta DBHko klaseak ematen ditut euskaraz zein erdaraz. Majisteritza ikasia eta esperientziaduna klase partikularrak ematen. 635209193.
- Bi neska lizentziatu eta esperientziadunak LH eta DBHko haur eta gazteei klase partikularrak ematen ditugu euskaraz zein gazteleraz. Interesatuak: 653711574.
- Emakume bat eskeintzen da etxeko-lanak egiteko, pertsona helduak zaintzeko edota antzeko lanetarako. 620 646 769.
- Kamarera euskaldun bat eskaintzen da astelehenerik ostiralera lan egiteko. 667 694 469.
- Emakume bat eskaintzen da astelehenerik ostiralera, pertsona helduak edo ezinduak zaintzeko. Telefonoa: 626 641 155 Mariaje.
- Taberna batean egingo nuke lan edo antzeko zer-baitetan. 652 757 495.
- Portalak eta eskailerak garbitzeko neska bat eskaintzen da. Esperientzia horrelako lanetan. 690 784 113.

- Oporretako, ospakizunetako, edozein motatako bideoak montatzen dituen profesionala eskaintzen da. 943555835/ 617242660.

**Lan-eskaintzak**

- Pertsona bat behar dugu astelehenetik ostiralera eta 12:00etatik 17:00etara jatetxe bateko sukaldeko garbiketarako egiteko. Interesatuak deitu 664471766 edo 661955920 telefonora.
- 4 urteko umea zaintzeko norbait behar dugu. Goizean ikastolara eramateko eta eguardirako. Gida baimena eduki behar du. 675007048
- Antxeta tabernan bi langile behar ditugu: kamarrera bat eta sukaldean aritzeko langile bat. 943 37 03 44. Ordutegia: astelehenera, 13:00etik 16:30era. Asteartetik ostegunera, 13:00etik 16:00etara. Ostiralean, 13:00etik 16:00etara eta 20:00etatik 00:00etara. Larunbatean, 07:30etik 12:30era.
- Etxeko lanak egiteko eta haur bat zaintzeko egun osoz, pertsona baten bila gabiltza .645403905.

**BESTELAKOAK / GALDUTAKOAK**

- Andoingo Zine eta Bideo Eskolak 7 laburmetraia egiteko aktoreak behar ditu euskaraz zein erdaraz. 667886414 telefonora deitu (Miren).
- Antxumeak eta ibiltzeko zaldi bat saltzen ditut. Interesatuak deitu: 657633461.
- Argazki zaharrak berritzen eta txukutzen dira, baita ezkontza, opor edota beste edozein ospakizunetako bideoak editatu ere. Emaitza profesionala, modu onean. Telefonoa 617242660 edota zapore@euskalnet.net
- Telebista aldatzekotan bazara eta zer egin ez bada-kizu etxean daukazu arekin, gustora hartuko genuke. Deitu 943360321 telefonora eta geroni pasako ginatete jasotzera.
- Gazteentzat lokal bat alokairuan hartuko genuke. Gure telefono zenbakia: 667 694 049.
- Urtarrilaren 21ean iluntzean 9 urteko mutiko baten bizikleta txuri-gorria galdu genuen frontoi atzean. Aurkitu duenak deitu 943360551.
- Graduututako betaurrekoak galdu ditut, Bordaberri kale inguruan. Aurkitu badituzu NOAUA!ra ekarri mesedez.
- Zubietatik Andatzarako bidean hiru giltza topatu ditugu. Galdu dituenak jakin dezala udaltzaingoan utzi ditugula.
- Fatxada margotzeko pintura naranja salgai daukat, kalitate onekoa, prezio onean. 635 209 235.
- Bustner Fun modeloko 5 pertsonentzako karabana salgai. Komun kimiko bat eta sukaldea. 1.200km. Prezioa 6.000 e. 629 680 214.
- Umea eramateko mendiko motxila bat erosi nuke. Tlfnoa: 605 72 48 24
- Urtarrilaren 25ean txamarra bat galdu zen frontoi atzeko jolas-lekuan. Urdin ilun kolorekoa eta 10 urteko mutil batena. Aurkitu baduzu NOAUA!ra ekarri.
- Pago egur txikitua eta lehorra salgai. Etxera eramaten da. Tf. 615 755 762.

**I lts r tz**

---

Mugikorra: 649435475  
 649435476  
 943 363370- 361439

**JOSUE**  
**ARANZAZISTROKI**  
**IGELTSERITZA**  
**eta**  
**PINTURA**  
*Juan Jose enea, 6 Kalezar*  
*Tel: 606 37 21 05*

Zuen publizitatea hemen

☎ 943 360 321

publizitatea@noaua.com

# Ileapaindegietan euskaraz

Ile motza, luzea, kixkurra, harrotua, kolore ezberdinetakoa... pertsona bakoitzari, ilea orrazteko modu bat doakio eta ileapaintzailearena izaten da egokiena topatzeko lana. Bezeroaren izaera, jatzeko modua, aurpegiaren forma... hainbat gauza hartu behar izaten dute kontuan ilea moztu edota orrazterako garaian, emaitza ahalik eta gustagarriena izan dadin.

**D**uela urte batzuk, ohikoa goa izaten zen tendentzia jakin batzuk jarraitzea, baina gaur egun, pertsona bakoitzari hobekien doakion orrazkera bilatzen saiatzen dira, tendentzia jakinei kasu gehiegirik egin gabe. Eta horretarako beharrezkoa izaten da psikologia lan pixka bat egitea. Bezeroarekin hitz eginez, haren nahiak eta ezaugarriak aztertzen dituzte, ahalik eta emaitza egokiena lortzeko ahaleginean. Jendearekin duten harreman zuzen hori, oso garrantzitsua da zerbitzu ona eskaintzeko garaian.

## Ahalik eta zerbitzu osoena eskaini

Baina, entzuten jakiteaz gain, behar beharrezkoa izaten da teknika berriak menperatzea ere, eta horrek, etengabe ikasten aritzea eskatzen die ileapaindegietako langileei. Materiale, tresna eta teknikak denbora gutxian aldatzen dira eta haiek ezaugarria ezinbestekoa da ileapaindegia aurrera egingo badu. Bezeroari ahalik eta zerbitzurik osoena eskaintzea da helburu nagusia. Ileapaindegi askotan, esaterako, makilaia edota edertasunarekin loturiko bestelako zerbitzu ugari eskaintzen dira eta horrek, etengabeko birziklapen prozesuan murgilduta egotea eskatzen du.

## Euskararen erabilera sustatuko duen kanpaina

Bezeroa ileapaindegira sartzen denetik egiten zaion harrera, tratua zuzena, lokalaren egokitzapena... gauza asko zaindu beharra izaten da zerbitzua jendearen gustukoa izan dadin. Buruntzaldeko ileapaindegietan, zerbitzu hori aberastu egingo da hemendik aurrera, izan ere, euskararen erabilera sustatuko duen kanpaina martxan jarri baita.

Merkataritzan euskara sustatzeko urrats berria eman da, egitasmo honek aurretik egindako beste batzuei jarraipena emango baitio. Jatetxeak, arrandegiak, harategiak... eta orain ileapaindegia. Ez da hor bukatuko eskualdeko udalen parte hartzea. Dagoeneko fruta denden artean eragiteko egitasmo berria lan-tzen ari dira.

## Ileapaintzailea eta bezeroa euskaldunak diren kasuan

Hel diezaiogun lehenik udaberri honetako lehen kanpainari. Bezeroak ileapaindegira sartzean, euskararen presentzia senti dezan da kanpainaren helburua. Ileapaintzailea eta bezeroa euskaldunak diren kasuetan, euskaraz hitz egin dezatela bultzatu nahi da, eta hala ez den kasuetan berriz, euskararen presentzia nabarmentzea.



JATETXEAK, ARRANDEGIAK, HARATEGIAK... ORAIN ILEAPAINDEGIAK. EUSKARA BETI AURRERA.

## Euskarazko prentsaren presentzia bultzatuko da

Helburu hori lortzeko, hainbat ekimen jarriko da martxan. Esate baterako, euskarazko prentsaren presentzia bultzatuko da. Ileapaindegietan mota ezberdinetako aldizkari eta egunkariak izaten dira bezeroen eskuragarri, baina oso gutxitan aurki daiteke euskarazko aldizkaririk. Buruntzaldeko Udalek, urtebeteko harpidetza eskaini diete ileapaindegiei, euskarazko aldizkarietan. Modu horretan, bezeroen gustuko diren beste produktuak eskuragarri izango dituzte. Eta ez bakarrik euskaraz direlako, baizik eta bezero askok nahiago izaten dutelako larrosa kolorekoa ez den beste prentsa idatzia.



# eska ezazu orrazteko euskaraz



Andoain, Astigarraga, Hernani,  
Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbilgo  
Udalak. Euskarako Batzordeak.